



3 POLITIKA

Lasarte-Oriako BAI plataforma aurkeztu dute

Azken 34 urtetan herrian izandako "atzo eta gaurko zinegotzi nazionalistek" sortu dute BAI plataforma, Bakea, Askatasuna eta Ikurrina. Estitxu Alkortak EAJko egungo zinegotzi eta ordezkariak irakurri zuen taldearen sortze-gutuna. Brigitarren komentu aurrean asteazkenean egin zuten agerraldia.



Lasarte-Oriako Udalak egindako deialdiari erantzunez, hainbat izan ziren parte hartze bilerara hurbildu ziren herritarrek.

Animalien jabetzaren legedia aztergai

Lasarte-Oriako Udalak herritarren iritzia jaso zuen bilera irekian

Lasarte-Oriako Udalak Animalien jabetzaren legedia jarraikiz, parke eta eremu berdeen erabilera arautzeko hainbat neurri jarri nahi ditu martxan. Baina hau onartu baino lehen, herritarren iritzia ere jaso nahi izan ditu eta horretarako azteazkenean bilera egin zen herriko txakur jabeekin.

Asteazkenean Euskaltegiko hitzaldi aretoa bete zen. Arrazoa, Lasarte-Oriako Udalak Animalien jabetza ordenantza berritzeko parte hartze prozesua izan zen.

Udalak jakitera eman zuen Lasarte-Oriako ordenantza zaharkitua dagoela eta Animalien jabetzaren legedi berrira egokitu beharra dagoela.

Era berean, Udalak azaldu modura, "Pausoz pauso Auzoz auzo" ekimenean auzo desberdinetako herritarren eskara izan zen parke eta kaleak garbi mantentzea eta zehazki, txakurren kakek sortzen dituzten arazoak konpontzea.

Bilera

Honela, Lasarte-Oriako Udalen lehentasunetako bat

bilakatu da arazoari irtenbidea bilatzea eta pertsonak eta txakurrek espazioak behar bezala elkarbanatzeko hainbat neurri aurkeztu zituen asteazkenean.

Nerea Sanchez Ingurumen zinegotzia, Alaitz Mendizabal Parte-Hartze saileko ardura-duna eta Larraitz Sarobe teknikaria izan ziren Udalaren proposamena azaldu zuten ordezkariak.

Nerea Sanchezek lehenik herritarrei egun indarrean dagoen Animalien jabetzaren legedi berria azaldu zien.

Txakur arrikutsuek muturrekoa eraman behar dutela edo lotuta joan behar direla, luza daitezkeen korreak ezin

direla erabili edo txakurren gorotzak jabeek jaso behar dituztela aipatu zituen.

Jarraian, Sanchezek Lasarte-Oriako Udalak landutako proposamena jarri zuen mahai gainean, herriko hainbat parke eta eremu berdeetan txakurrei sarrera debekatzeko edo ordutegia jartzea. Honen arabera, esate baterako, txakurrak ezingo ziren Tximistarrera edo Askatasunaren parkeetako zelaietan ibili.

Udalaren azalpenaren ostean, herritarrek talde lana egin zuten. Ideiak amankomunean jarri eta haien zantzetan, arazoak eta neurriarekiko adostadun eza agertu zuten nagusiki.

Astelehenean ekainaren 24an, ez da TXINTXARRI-rik argitaratuko. Hurrengoa ekainaren 27an kaleratuko dugu, San Pedro jaietako ale berezia. Honetan, omenduei elkarrizketak, jaietako egitarauak, erreportajeak etab. aurkituko dituzue.

ANORGA TXIBI S.L



KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak · beira bikoitza
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943 37 17 33- 610 45 93 45

Gipuzkoako erakusketarik zabalena 500m²-tan



- Haur kotxeak
- Paseoko aulkiak
- Sehaskak
- Tronak
- Autorako aulkiak
- Bainerak
- Biberoiak
- Osagarriak
-

www.jostamendi.com

Easo 51 20006 Donosti • Tel.: 943 470244
Artaleku 3 20300 Irun • Tel.: 943 638223

Neure kabuz



Asier Odriozola

Eguraldiaz hausnarketa

Asper-asper eginda gauzka uda-berriko eguraldi gris, triste eta goibelak. Asperdura sortzen du egunez egun lainoek ba omen den eguzkia menpean dutela ikusteak. Dakitenek diote argi gabeziak, azkenaldian indarra galduta dabilen Errege Astroaren gabeziak eragin zuzena duela animoan, gorputzaldian eta begi bistako gertatzen da hori bereziki Euskal Herrian. Berezkoa dugu euritarako joera, gurean berdeak dira oso zelaiak eta inon ez bezalakoak letxuak, baina azkar asko aldegitzen dugu egun batzuk beroa segurugato duten lekuetara.

Berriki irakurri dut Azoreetako antizikloia, zer den garbi jakin ez arren askotan entzun dudana fenomeno, behar baino beherago dagoela eta beraz ez gaituela haren itzalak harrapatzen, lainoak eragozpenik gabe datozela alegia guregana eta agi denez, gustura sentitzen direla hemen, nahiz azpikook maldizioka hartzen ditugun.

Bi hausnarketa egin nahi ditut honen guztiaren harira, xumeak biak ere.

Bata, ez dugula eguraldiaren gaineko boteretik, gizakiak menderatu ez duen arlo gutxienetakoa dela alegia. Eta eskerrak hala den, esango luke batek baino gehiagok.

Bigarrena: aldatu ezin dugun, kontrolatu ezin dugun beste edozein egoera edo gauzarekin egitea komeni zaigun bezala, eguraldiarekin ere datorren datorenaz gozatzea komeni zaigula.

Euria ari duela? Gora euria! Hartu garai batean esaten zen bezala, guardasola eta egin kalera, borondate pixka bat jarriz gero xarma handia du eta horrek.

Zorion agurrak



Alazne

Zorionak gure etxeko printzesaren-tz. Bederetzi marrubizko muxu!!



Julen

Zorionak Txiki!! Musu handi-handi bat amaxo, aitaxo, Jon eta famili guztiaren partez!!



Lorea

Zorionak printzesa zure bigarren urtebetetzean!! Bi muxu, txokolatezkoak aita, ama, eta famili guztiaren partetik



Andrea

Zorionak maitia zure laugarren urtebetetzean. Muxu asko familia guztiaren partetik.



Aintzane

Sorgin jatorrenari zorionak!!!! Koadrila jatorrenaren partetik.



June

Zorionak sorgintxo! Txokolatezko 7 muxu Markel eta familiaren partetik.



Mirari

Zure 8.urtebetetzean!!! Zorionak eta urte askuan!!



Mario

Zorionak sagutxo! Marrubizko muxuak amoi, osaben eta Paularen partetik. Muaaaa!



Asier

Zorionak bihotza! 5 muxu handi handiak zure aitaxo, amaxo eta Iratiren partetik!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 366 858, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Juan XXIII kalean garajea alokatzen da. Hilean 60euro. Harremanetarako deitu 943 363 524 edo 648 614 769 zenbakira.
- Garaje marra bat alokatzen da Lasarte-Oria erdigunean. Merke. 687 271 288
- Bizi naizen pisua konpartitu nahi dut. Zentroan dago, argitsua da, bi gela ditu eta balkoi handia. Animatu! 647 884 278 Pilar

Salerosketak

- Kotxea salgai. Mercedes Vito 4000 eurotan. (Ohea du) 630032779
- Umeentzako aulki bat salgai egoera onean. Maclaren Techno-xt markakoa. Erosten duenari egurrezko seaska bat oparituko niok. 687 965 454.
- Volvo S40 saltzen da. Zortzi urte eta 85.600km ditu, oso egoera onean dago. Interesatuek deitu 650 016 900

Lan-eskaintzak

- Ile-apaintzailea behar da. Esperientziarekin. Harremanetarako, 647 821 361.

Lan-eskariak

- Neska arduratsuak lana bilatzen du, interna moduan edo orduka. Harremanetarako, 602 504 188.
- Neska arduratsuak lana behar du. Garbiketa lanak edo pertsona helduen zaintza. Harremanetarako, 606 642 187.
- Neska arduratsuak garbiketa lanak, haurrak edo pertsona helduak zainduko lituzke. Harremanetarako, 628 232 293.
- Lizentziatu gaztea klase partikularrak emango lituzke. Maila guztiak, Lanbide hezkuntza eta Unibertsitatea (Arkitektura), Marrazki teknikoa, geometria deskriptiboa, Autocad, matematika, fisika, lengoia eta literatura. Ordu-tegi 606 260 711.
- Adinduek zainduko nituzke, interna edo orduka. Harremanetarako, 638 372 872.

Bestelakoak

- Haur-pultsera bat aurkitu da Hipodromo etorbidean. Norbaiti falta bazaito dei dezala 654 167 077 zenbakira.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Khantushig Urantsetseg, ekainaren 16an.
- Ekain Goikoetxea De Miguel, ekainaren 1lean.



Heriotzak

- Mari Carmen Gonzalez Martinez, ekainaren 16an, 86 urte zituela.
- Maria Inez Uranga Armendariz, ekainaren 15ean, 92 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 21	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Larunbata, 22	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Igandea, 23	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Astelehena, 24	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Asteartea, 25	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteazkena, 26	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Osteguna, 27	Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Aldabe, Perkaiztegi 8
Hernani, Tel.: 943 336 022

Larrialdi telefonoak


Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udalzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE ORIA
UDAL A

Laguntzailea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIALA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GFako Kultura eta
Euskararen Departamendua

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuletan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttikon Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Jon Altuna I.,
Maider Azumendi, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñioa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Jone M.
Hernandez, Oihana Salazar,
Pako Aizpirtate, Edu Galardi

Informatika:
Xabier Amadoz

POLITIKA

BAI plataforma aurkeztu dute

BAI, Bakea, Askatasuna eta Ikurrina da taldearen izena



Brigitarren komentuan egin zuten aurkezpena asteazkenean BAI taldeko kideek.

Lasarte-Oriako BAI plataforma aurkeztu zuten Brigitaren komentuan azken 34 urtetan herrian izandako "atzo eta gaurko zinegotzi nazionalistek". Estitxu Alkortaek EAJko egungo zinegotzi eta ordezkariak irakurri zuen plataformaren sortze-gutuna.

Maider AZURMENDI

Brigitarren komentuan aurrean, "Lasarte-Oriako bere jaiotza formala izan zuen lekuan. Ehunka urteetan adierazitako nahari erantzunez, hemen bertan lortu zuen udalerria izatea. Ez zuten hutsetik sortua. Mendean zehar, udalerrri-moldeak lortu ez bazuen ere, nortasun indartsua azaldu izan zuten bertakoek, herri sustrai sendoak zituztela agertaraziz".

Bertan aurkeztu zuten Lasarte-Oriako BAI plataforma berria, Bakea, Askatasuna eta Ikurrina.

Sortzaileak, 34 urtetan herrian izandako "atzo eta gaurko zinegotzi nazionalistak. Noizbait Lasarte-Oriako herriari egindako zinak berak ekarri gaitu berriro honaino.

Behin hartutako konpromisoak, irmoa izanez gero, iraun egiten duenaren froga bizia gara. Orain ere, lehen bezala, gure herria hartzen dugu abiaburu, bide eta helmuga".

Estitxu Alkortaek eta Boris Nogalesek, egun EAJko zinegotziak irakurri zuten taldearen sortze-gutuna.

BAI izenaren jatorria "Bakea, Askatasuna eta Ikurrina. Bakea, indarkeriaren garaiari bukaera emateko. Askatasuna, gure arazoak gure eskutik konpontzeko beharrezkoa dugulako. Bakea eta Askatasuna, gizartearen elkarpen sanoagoa zimendatzeko. Ikurra, elkarpenaren erakusle sinbolikoa delako. Bi ikur dira gure arteko baterapen hori egokien azaltzen dutenak: euskotar ikurrina eta lasarte-oriatar bandera".

Garai zailean elkartu

Egun herrian langabeziak besteak beste, sortzen dituen arazoaren aurrean "Lasarteoriatarren arima ekintzaile horri eutsi behar gaitzaizkiola aldarrikatu nahi dugu. Egoera kritikoetan sortzen omen dira ekimen baliotsuenak".

Eta horregatik "iraganen, hamaika zatiketa eta borroka bizi ditugu gure artean. Hala ere, bistan da katea ez dela eten. Lasarteoriatarren beharrei erantzuteko borondateak bildu gaitu berriz ere. Datoren garai berriak elkarrekin landu nahi ditugu. Arazo zaharrak atondu gabe segi ez daitezten garai berrietan. Gure agerraldi eta idazki honekin Etorkizunari BAI esatea nahi genuen, apaltasunez baina ardura guztiarekin".

Elkartze hau, Espainiako bandera jartzearen aurka udalletxean egindako agerralditik datorrela aipatu zuten. Era honetara, garai batean EA, Hamaikabat edo EAJko zinegotzi izandakoek elkar ulertzeko lehen pausua eman dute Lasarte-Orian.

PARTE HARTZEA

Iraunkortasuna eztabaidagai

Asteartean Kultur etxean burutu zen Agenda 21 ekintza planaren lehen bilera irekia. Nerea Sanchez zinegotziak aurkeztu zien ekimena bertarutako herritarrei. Lehenengo diagnostikoaren nondik norakoak entzun zituzten eta ondoren iritzia emateko aukera izan zuten herritarrek.

Udalak Tokiko Agenda 21eko prozesuaren baitan, 2006. urtean bere Ekintza Plana onartu zuen. Orduetik, Plan honek iraunkortasunaren aldeko pausak ematen lagundu du eta, mugikortasuna, energia, hondakinak, lurralde antolamendua edo garapen ekonomiko bezalakoak jorratu ditu. Lehenengo Plan hau amaitutzat jo da eta orain, berri bat definitzeko lehen pausok ematen hasi behar denez, udala Lasarte-Oriako gaurko egoera zein den jasoko duen Diagnostikoa osatzen ari da. Diagnostikoan oinarrituz, etorkizuneko Lasarte-Oriako Agenda 21eko Ekintza Planaren oinarria osatzen duten lehenetsuneko eremuak identifikatu nahi dira eta hau herritarren parte hartzearekin egin nahi izan da.



MATRIKULAZIOA

EPA-HHI izena-ematea zabalik

Lasarte-Oriako EPA-HHI ikastetxeko matrikula epea zabalik dago. Ekainaren 27ra bitartean Graduata ateratzeko ikasketak egin nahi dutenek edo Unibertsitate eta Lanbide Heziketako Goi Mailako sarbide probak prestatu nahi duten pertsonak matrikulatzeko aukera dute.

Irailak 9tik aurrera berriz, aurrekoekin batera, beste ikasgaien bat (Ingelesa, informatika,.....) egin nahi duten herritarrek eman beharko dute izena.

PSE-EE

Kritika udal gobernuak eskatutako inkestari

PSE-EEko bozeramailea Jesus Zaballosek salatu du, publiko egindako oharren bidez, Lasarte-Oriako udal gobernuak Aztikar enpresari eskatutako inkesta ez dutela herritar guztiek ordaindu behar.

Inkesta honen helburua herritarren artean iritziaz jasoz, alkatea eta zinegotzien balorazio bat egin, baita orain arte udalak jarraitutako politiken inguruan herritarrek duten iritzia ezagutzeko da Zaballosen arabera.

Sozialistentzat "inkesta honek Bilduren alderdikeria erakusten du beste behin ere, herritar guztien dirua erabiliko du ezker abertzalearen ideiak defendatzeko eta ahaztu egiten zaie alkateak lasarteoriatar guztientzat gobernatu behar duela". Honekin batera talde sozialistak dio, "ez dugu ahaztu behar ere, erabaki hau babesten dutela EAJk eta LOHP-ek".

Jesus Zaballosek Lasarte-Oriako Bilduri eskatzen dio inkesta hau bere gain hartzea "bere dirutik ordaintzea, garai batean PSE-EEK egiten zuen bezala eta aurrerantzean behar bezala bereiztea zein den udalean egiten den lana eta zein alderdiak egin beharrekoa".

ELKARTASUNA

Ostare taldearen tonbola igandean

Ekainaren 23an, igandean, 11:00etatik 13:30etara Arantzazuko Amaren Elizako enparantzen Ostare gazte taldeak Tonbola Solidario bat antolatu du.

Ekimen honekin ateratzen duten dirua Zumaburu Arantzazuko Amaren elizako teiatua konpontzeko erabiliko dutela eman dute jakitera eta hau dela eta, herritarrek honetan parte hartzea deitzen dituzte.

Albokaren lehen kontzertua gogoan

Alboka Abesbatzak bere 25. urteurreneko ospakizunen barruan, 1988ko ekainaren 24an eskaintako lehen kontzertua gogora ekarriko du bihar larunbata, 20:00etan hasita San Pedro parrokan.

Kontzertu honetan herriko abesbatza ez da bakarrik egongo eta oholtzan lagun arituko dira, Lasarte-Oriako SuBerri akordeo orkestra, Xabi Lasa gitarrista, Javi Busto musikagile hondarribitarra eta Alba Carretero biolin-jolea.

Albokaren esanetan, hiru berezitasun izango ditu kontzertu honek, batetik Javi Bustok egun honetarako bereziki idatzi duen obraren aurkezpena egingo da, "Sicut Cervus" lana.



Aurreko kontzertua Okendo plazan egin zuten abesbatzak.

Bestetik, Alboka Abesbatzan, Zandategi eta Alboka Txikin ibilitako abeslari guztiekin batera abesbatzako errepertorioan ohikoak diren "Kantuz" eta "Ilunabarra" abestiak eskainiko dituzte.

Eta azkenik, gogoan izan go dira 25 urte hauetan izan diren abeslari, bazkide eta lagunak.

Albokatik herritarrek gonbidatzen dituzte euren 25. urterena elkarrekin ospatzera.



Musika eskolako ikasleek irakasleen laguntza izan zuten emanaldian. Diploma banaketa musikarekin lagundu zuten ere.



Taldeka zein banaka aritu ziren lehenengo emanaldian musika ikasleak.



Diplomak banatzeko alkatea eta Boris Nogales zinegotzia igo ziren oholtzara.

Ikasturtea agurtzeko emanaldia

Doinu klasiko eta egungoak ikasleen eskutan

Udal Musika eskolako ikasleek ikasturte amaierako emanaldiak eskaini zituzten astearte eta asteazkenean Manuel Lekuonan. Hilabete hauetan ikasi duten guztia oholtzara eramán zuten haur eta gaztetxoek. Musikaz gain, dantza ikuskituz ere gozatzeko aukera izan zen. Saioen amaieran musika ikasleek euren diplomak jaso zituzten.

Ikasturtea bukatzeaz dela eta, Udal Musika Eskolako ikasle eta irakasleek bi kontzertu prestatu zituzten Manuel Lekuonan.

Lehenengoa, asteartean egin zuten. Kontzertu hasieran, txoko 3 eta txoko 4 ikasle taldeen ikuskizunaz gozatzeko aukera egon zen Mr Yusiohi, Inperiar Martxa eta Tchaikovskyren martxaren doinupean. Ondoren, tronpetak, trikitixa, pianoa, biolina, gitarra, flauta eta abesbatza ikusi eta entzuteko aukera izan zuten bertaratutako herritarrek.

Emanaldian kantu klasikoak eta egungo doinuak izan ziren besteak beste, "Txori txiki bat", "Let it be", "Neska zaharrak" eta "Egun da Santi Mamiñ" bezalako euskal kanta herrikoiak... banaka,

binaka edota talde txikietan jo zuten artista gazteek euren lanak.

Egun euritsua izan zen arteartekoa eta honek ere lagunduta, jendetza gerturatu zen emanaldia ikustera. Ikasleek txalo zaparrada luzeekin eskertu zuten oholtzara gainean gaztetxoek egindako lana.

Taldeen txanda

Bigarren kontzertua berriz, asteazkenean eskaini zuten eta taldeen emanaldiak izan ziren honetan nagusi. Bigarrenez, Manuel Lekuonako areto nagusia goraino bete zuten herritarrek.

Musika tresna berdín edo desberdinez osatutako taldeak aritu ziren maisuki. Entzundako doinuak berriz, egungo eta kanta herrikoiei zein klasikoetan nahasketa.

Emanaldia bukatzean, ikasturte honetan maila gainditu dutenei ikasleei diploma banaketa egin zitzaizkien.

Honetarako oholtzara igo ziren Pablo Barrio alkatea eta Boris Nogales Kultura batzorde burua. Alkateak zorianak eman nahi izan zizkien ikasle guztiei "diploma eskuratu ez dutenei ere bai". Lanean jarraitzeko animoak eman nahi izan zizkien eta bere hitzen ostean, banan-bana ikasleak diplomak jasotzera igo ziren oholtzara.

Banaketa nola ez, musikaz lagunduta egon zen ikasle eta irakasleek osatutako taldeari esker.

Musika ikasleek Manuel Lekuona kultur-etxeok dantza ikasleei eman zieten lekukoa eta eurekin bukatu zen emanaldia. Hauek lau dantza eskaini zituzten tartean "New York, New York" kanta ezagunaren doinuakin egindakoa.

Eskainitako bi kontzertu polit eta oso hauekin behar bezala amaitutzat eman zuten ikasturtea ikasle, irakasle eta gurasoek.

Erketzen emanaldia gaur kultur etxean

Erketz EDT, Erketzeko lagunak eta Erketz-txikik ikasturte amaierako emanaldia eskainiko dute gaur Manuel Lekuona kultur etxean 20:00etan hasita.

Ohi bezala herriko taldeak ikasturtea amaitzen du San Pedro jaien bezperatan eta emanaldia urteroko hitzordu bihurtu da, herriko jaien aurrekari nagusietako bat izanda.

Euskal dantza saioa

Dantza taldeek Ruben Arranzen hitzetan, ordu luze, "ordu



Iaz Okendo plazako oholtzan egin zuten ohiko emanaldia Erketzekoek.

eta erdiko" saioa prestatu dute eta txikienetatik hasi eta

helduetaraino, ikasturte osoan zehar ikasitakoa erakutsi ahal

izango dute dantzariak Manuel Lekuonan.

Oholtzara gainean ikusiko diren dantzak aipatu ditu Arranzen azaldu bezala Euskal Herriko hainbat txokoetako dantzak ekarriko dira, Gipuzkoako dantza erara lehenengoak: Agurra, Aurrez-aurrekoa, Belauntxingo, Punta motz, Alpagata, Arartia, Itses-dantza, esku-dantza, Sardineras, Irradaka, Xuberoa, Barrikada, gabota, godalet, 2 kuadrille eta irteera, Makil jokia, eta Larrain dantza. Tartean musikariek izango dute

euren kantzak jotzeko aukera ere.

"Ohiko emanaldia da guretzat, gure dantza guztiak herritarren aurrean aurkeztekoa".

San Pedro jaiak ate joka dira eta ez da gaurko saioa Erketzekoek izango duten bakarra. Izan ere, San Joan bezperan eurek gidatuko dute ere San Joan zortzikoa.

Erketzetik herritarrek gonbidatzen dituzte kultur etxera gerturatu eta euren dantzaldiaz gozatzeko. Sarrera doan da.

Erritu eta usadioen gaua, San Joan gaua

San Joan sua izango da Okendo plazan igandean

Ikasturtea amaitu da eta gaur udan sartzen gara. Baina urtaro berri honen etorreraren ospakizunak igandean, San Joan bezpera egunean izango dira. Orduan, Euskal Herriko baserri, etxe eta plaza desberdinetan sua piztuko da. Lasarte-Orian ere, Okendo plazan erreko da. Aurretik, Erketz EDT-ko lagunek udal ordezkariekin batera zortzikoa eta soka-dantza dantzatu dituzte.

Euria eta lainoak, besterik ez dugu ikusi azken astean baina ez badirudi ere, uda iritsi da. Eta horrekin batera herri desberdinetako jaiak. Lehenengoa, San Joan eguna.

Eta honen bezperan, ekainaren 23an, igandean San Joan su eguna da eta gure arbasoen antzera, udako solstizioa ospatuko dugu.

Jatorri paganoa duen antzina-antzinako tradizioa da, nahiz eta Erdi Aroaz geroztik, San Joan Bataiatzailea kristau santuaren izena daraman.

Usadio eta erritokak

Gau magikoa omen da San Joan bezperako gaua, oroitzapen txarrak erraustu eta horiek ahazteko gaua dela esan ohi da.

Baina Euskal Herriko txoko guztietan ospatzen den gau honetan garaian garai hainbat usadio eta erritu egun dira.

Esaterako, egun horretan iturri, putzu eta erreka batzuetako urez garbitzea, haietako ura edatea nahiz San Joan eguneko goizeko ihintza zapaltzea osasungarria dela sinetsi izan da.

Lasarte-Oria inguruan ere hainbat izaten ziren egiten ziren erritokak.

San Joan bezperan sua erre eta gero, su berria eta ur beinkatua banatzen ziren baserri baserri.

Eta San Joan egunean elorria eta erramuarekin egindako gurutzak jartzen ziren ate eta leiho guztietan trumoiak saihesteko.

Erritu batzuk oraindik ere mantentzen dira eta hainbat izaten dira San Joan egunen etxebizitzako sarrerako atean lizarra jartzen duten herritarren.

Zortzikoa eta sokadantza

Honela igandean, San Joan bezperako ospakizunak izan-



Igandean, San Juan sua izango da Okendo plazan. Herritarrek urtean zeharreko oroitzapen txarrak erretzeko aukera izango dute.

go dira Lasarte-Orian. Hauek 21:30ean hasiko dira udaletxe aurrean.

Bertan, Erketz EDT-ko lagunek San Joan-eko zortzikoa eskainiko dute.

Ondoren, Udaltzako kideak, Erketz EDTko dantzari eta musikariak lagun dituztela, Okendo plazarantz abiatuko dira.

Plazara iristerakoan, Soka-Dantza tradizionala dantzatuko dute.

Iaz bezala, Erketz euskal dantza taldekoekin batera udaltzarreko hainbat zinegotzik egingo dute dantza, hala nola, Pablo Barrio alkatea edo Bildu, EAJ eta LOHP-eko zinegotziak.

Sua

Eta hau amaitzean, 22:00ak aldera, denek espero duten



Iaz bezala, Lasarte-Oriako alkate eta hainbat zinegotzik soka-dantzan parte hartuko dute.

unea iritsiko da, San Joan Suaren piztea

Sua erre bitartean, kalejira, fandangoa eta arin-arina dantzatuko dira.

Suaren garretan erreko dituzte herritarrek urte honetako gauza txarrak, ea bide batez ahaztu ditzaketen gau berezi honi esker.

San Pedro jaietarako motorrak berotzen

San Pedro jaietako aste bete besterik ez da geratzen. Eta hainbat dira aste honetan festei aurre hartu dieten ekintzak.

Esate baterako, Biyak Bat elkartean San Pedro Jaietako mahai-joko eta mugimendu jokoetako txapelketak antolatuko dira.

Ekainaren 10ean hasi ziren. 4 errege eta 8 erregetako mus txapelketak, puntito, chinchon, eskoba, tute, briska, rabino eta seietaoko lehiaketak izan dira eta irabazleak honako hauek dira: 4 erregetako musean, Ruben Rodriguez eta Diego Roman; 8 erregetako musean, Andre Moreno eta Jose Morales; eskoba eta puntitoan, Angel Rama eta Manuel Belartietak; Tutean, Demetrio Sanchez eta Manuel Labrador; chinchon, Itziar Camarero Nuñez; briskan, Julia Diez eta Maria Sanchez eta rabinoan Maite Iturrioz. Seietaoko txapelketako

irabazlea ezin izan dugu jakin erredakzioa itxi baino lehen.

Antolatzaileek aipatu digutenez, harrera ona izan dute txapelketek.

Mugimendu jokoak

Baina ez dira jokoak amaitu. Gaur arratsaldean, partxis txapelketa izango da.

Hurrengo astean, berriz, astelehenean domino lehiaketa eta asteartean mugimendu jokoak izango dira nagusi.

Beraz, oraindik badago denbora hainbat jokoetan izena emateko, hala nola, igela, pote edo toka txapelketetan parte hartu nahi dutenek egun horretan Biyak Bateko egoitzara edo Isla plazara hurbildu beharko dira.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, ekainaren 27an, osteguna izango da txapelketa guztien sari banaketa eta horregatik irabazleak eta finalistak gonbidatzen dituzte ekitaldira.



Hainbat izan dira aste hauetan mahai-jokoan inguruan Biyak Bat elkartean bildu diren herritarrak.

Erakustaldiak

Baina ez dira hauek San Pedro Jaietako aurretik egingo diren ekintza bakarrak.

Biyak Bat elkarteko lagunek beste bi ekintza antolatuko dituzte gaurko.

Goizeko 10:00etan, aerobik taldeko lagunek sasoiak daukela erakutsiko dute eta 11:00etan, gimnasia taldearen txanda izango da.

Eta honen ostean, Emakumeen Zentro Zibikoko lagu-

nek batuka, aerobik eta sabel dantza ikastaroetan lortutako trebetasuna erakutsiko dute hainbat dantza eskainiz.

Ekintza hauek guztiak Udala kiroldegiko kantxa nagusian egingo dira.

LABURRAK.-

Busto eta Harto Euskadiko txapelkun

Kadete mailako Euskadiko txapelketa izan zen lehengo larunbatean, Durangon. LOKEko gazteak ederki lehiatu ziren, Eneritz Busto eta Amaia Hartok urrezko domina eraman zuten etxera.

Eneritz Busto 110 m. hesi-lasterketan nagusi izan zen marka eginez, 15,23 sg. eta altueran ere lehenengo postua eskuratu zuen. Amaia Hartok, berriz, xabalina-jaurtiketan lortu zuen urrezko domina.

Eta hirugarren postuan amaitu zuen Idoia Olasagastik 100 m. lasterketa eta 12,90sg-ko markak Espainiako txapelketan egoteko aukera eman dio eta Oihana Igariziek diska eta xabalina-jaurtiketa probetan brontzezko domina lortu zuen.

Bestalde, Itoitz Rodriguez, Ane Galardi eta Maria Eugi jubentilak Durangon izango dira asteburu honetan Espainiako txapelketan parte hartzen.

Bodegas eta Fernandez de Lezea garaile Santurtziko triatloian

Santurtziko I. Triatloia ospatu zen ekainaren 15ean eta Pili Bodegas eta Amagoia Fernandez de Lezea izan ziren garaile bakoitza bere mailan.

Pili Bodegasek 1:06:36 denbora eginez, helmugara iritsi zen lehen emakumea izan zen. Amagoiak berriz, 23 urte azpiko mailan lortu zuen txapela.

Honetaz gain, Aritzalekuko triatloian, sprint mailan, Noemi Montero herritarrek 3. postua egin zuen beteterano mailan.

Herritarrek G2H lasterketan

Geroz eta ospe gehiago hartzen ari dira mendi-lasterketa gogorak. Baina Aralar eta Aizkorriko mendizerrak zeharkatzen dituen Goierriko 2



Korrikalariak babesleekin egin zuten agerraldia.

Handiak lasterketa (88km) ausartenentzako soilik dago prestatuta.

Uztailaren 12an izango dute hitzordua Ramon Mendizabal, Juan Mari Markos, Xanti Trantxe eta Javier Olazagoitia atletek. Esan bezala ia 90 km dituzte zain Goierriko mendietan barrena, eta 6000 metroko desnibel positiboa. Horiek 22 orduko denbora-mugaren barnean egin beharko dituzte, baina ondo prestatuta eta gauzak behar bezala egin izanaren lasaitasunaz abiatuko dira lau mendi-lasterkari ausartak.

Aurten babesle izango dituzte Etxezarreta Harategia eta Frutas Ruiz. Hauei esker, ekipazio berria ateratu dute, galtza piratak eta manga motzeko zein luzeko kamiseta bat.

ARETO-FUTBOLA.-

Mosso oroimenezkoa asteburu honetan lehiatuko da

Hiru egunetan kirol gunean jokatuko dira partida guztiak

Areto-futboleko zale-tuek asteburu honetan hitzordu garrantzitsua dute kirol gunean, Mosso oroimenezkoa. Aurten edizioak berrikuntza handia dakar, asteburu batean jokatuko dira partida guztiak. Beraz, igande eguerdian jakingo da zein taldek lortu duen kopa.



El Punto de encuentro taberna eta ISU Leihoak izan ziren iazko kopako finalean.

Nerea EIZAGIRRE

Aurten ere, gure herrian areto-futboleko XXVII. Mosso Oroimezko txapelketa jokatuko da. Baina berrikuntza garrantzitsu bat izango du, lehiaketa osoa asteburu batean jokatuko da.

Ostadar SKT-ko antolatzaileek adierazi dutenez, "txapelketako talde batek proposatu zigun bi eguneko txapelketa azkarra egitea. Ideia ona iruditu zitzaigun eta hori kontuan izanik aurtengo Mosso Oroimenezkoa moldatu dugu".

Era honetara, txapelketa ekainaren 21 eta 23a biratzen, hau da, ostirala, larunbata eta igande honetan jokatuko da Michelin Kirol gunean.

13 talde, kopa bat

Era honetara, 13 talde lehiatuko dira Mosso Oroimenezkoaren kopa lortzeko: Ilargi taberna, Balerdi Harategia, Ana eta Soi ileapaindegia, Urdaneta H.K., Trumoi taberna, Izkiña taberna, Indaux, Izarra bitxitegia, El Punto de Encuentro taberna, Buenetxea taberna, Albarñeria vertical, Oria kristaldetxia eta Txindoki taberna.

Honela iazko irabazlea El Punto taberna taldeak aurten ere garaikurra lortzeko aukera izango du, baita denboraldi honetako txapelketako irabazleak ere, Txindoki tabernak.

Ez da horrela izango iazko finalisten kasuan, ISU Leihoak. Antolatzaileek azaldu dutenez, "ISU Leihoak taldeak ez du parte hartuko areto-futbol txapelketan gertatutakoa medio".

Txapelketa sistema

Txapelketa sistemari dagokionez, lehiaketa azkarra izanik, ostirala eta larunbata goizean kanporaketak jokatuko dituzte taldeek.

Larunbata arratsaldean, final laurdenak izango dira eta hauetan zuzenean sartuko da Txindoki taberna, areto-futboleko txapelketako irabazle izateagatik.

Igandean, berriz, final erdiak jokatuko dira eta 11:30ean, XXVII. Mosso Oroimenezkoaren finala jokatuko da. Aurretik ohi den bezala Joxean Mosso gogoratuko dute.

Honela, partida interesgarriak ikusteko aukera izango da asteburu honetan Michelin kirol gunean.

Partiden ordutegi zehatzak jakiteko, agendan begiratu ditzakezue guztiak.

KIROL AGENDA.-

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 21

MOSSO OROIMENEZKOA

Kirol guneko areto-futbol pistan

19:30ean, Ilargi-Balerdi

20:30ean, Ana eta Soi ilea.- Urdaneta H.K.

21:20ean, Trumoi-Izkiña

Larunbata 22

MOSSO OROIMENEZKOA

Kirol guneko areto-futbol pistan

09:15ean, Indaux-Izarra

10:15ean, El Punto-Buenetxea

11:15ean, Albarñeria vertical-Oria kris.

15:30ean, Txindoki- (Ilargi-Balerdi)

Final-laurdena

16:30ean, Final-laurdena

17:30ean, Final-laurdena

18:30ean, Final-laurdena



Igandea 23

MOSSO OROIMENEZKOA

Kirol guneko areto-futbol pistan

09:15ean, Final-erdia

10:15ean, Final-erdia

11:30ean, FINAL HANDIA

PILOTA

Larunbata 22

SAN PEDROKO TXAPELKETA

Loidibarrero pilotalekua, 10:30etik

aurrera

Benjamin, alebin eta beteterano

mailako finalerdiak jokatuko dira.

Infantil mailako bi partida.

Igandea 23

SAN PEDROKO TXAPELKETA

Loidibarrero pilotalekua, 10:30etik

aurrera

Benjamin, alebin eta beteterano

mailako finalerdiak jokatuko dira.

Infantil mailako bi partida.

ATLETISMOA

Larunbata 22

Durangon, 10:00etan eta 17:15ean

LOKEko jubentil mailako Itoitz

Rodriguez, Ane Galardi eta Maria

Eugi atletek Espainiako txapelketan

parte hartuko dute.

Anoetako miniestadioa, Donostia,

17:00etan

LOKEko atletak Partehartze askeko

probak dituzte.



Igandea 23

Durangon, 9:30ean eta 16:130ean

LOKEko jubentil mailako Itoitz

Rodriguez, Ane Galardi eta Maria

Eugi atletek Espainiako txapelketan

parte hartuko dute.

Noain, 10:00etan

Herriko hainbat atletek Noaingo XXIV Kross Herrikoian parte hartuko dute.

Herrera, Donostia, 10:30ean

Herriko hainbat atletek

Herrerako kross herrikoian parte

hartuko dute.

TRIATLOIA

Larunbata 22

Lekeitia, 16:00etan

Herriko hainbat atletek Lekeitioko

XXI. Triatloian parte hartuko dute.

TXIRRINDULARITZA

Ostirala 21-Astelehena 24

Aia, Olaberria, Andoain, Segura

Bazpi Txirrindularitza eskolako eta

herriko juniorrek XXIV.

Gipuzkoako Itzulia proban parte

hartuko dute.

Larunbata 22

Agurain, 16:30ean

Bazpi Txirrindularitza eskolako eta

herriko 2. urteko kadeteek

Euskadiko txapelketa dute.

Zumaia, 16:30ean

Bazpi Txirrindularitza eskolako

infantilek Zumaia Saria proban

parte hartuko dute.

Igandea 23

Biyak Bat elkarteak, 08:00etan

Ostadar SKT-ko zikloturistek

Azkainera dute irteera.

Araia 10:30ean

Bazpi Txirrindularitza eskolako eta

herriko 1. urteko kadeteek

Euskadiko txapelketan lehiatuko dira.



Agenda

Ostirala 21, gaur, 20:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxean



Euskal dantzen ikuskizuna

Erketz EDT, Erketzeko lagunak eta Erketz-txikik ikasturte amaierako emanaldia eskainiko dute. Gipuzkoa, zein Euskal Herriko hainbat eremutako euskal dantzak erakutsiko dituzte. Hala nola, arratia, irradaka, itses-dantza, esku-dantza edo Larrain-dantza. Dantzariak ere atsedena izango dute eta Erketzeko musikariak hainbat doinu eskainiko dituzte emanaldian.

Erakusketa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA ETA JALGI KAFE ANTZOKIA

Gaur azken eguna Manuel Lekuona Alboka Abesbatzaren "25. urteurrena" argazki erakusketaz gozatzeko aukera.

San Joan Sua

UDALETXE AURREAN

Igandea 23, 21:30ean

San Joan Zortzikoa Udaletxe parean. Ondoren, Udaltzako, Erketz EDTko dantzariak lagun dituela, Okendo plazazantz abiaturiko da.

OKENDO PLAZA

Igandea 23, 21:45ean

Soka-Dantza tradizionala dantzatuko dute Erketz eta Udaltzako kideek.

Igandea 23, 22:00etan

San Joan Sua egingo da Okendo Plazan.

Lasarte-Oria

Musika

ZULO ARETOA

Ostirala 21, 00:00etatik aurrera

Jazz Jop Session bat egingo dute. Ondoren, Budin DJ-aren saioa, black music-a jarriko du.

Larunbata 22, 00:00etan

Mario Maqueda eta Blami DJ-en saioaz gozatzeko aukera aparta izango da.



SAN PEDRO ELIZA

Larunbata 22, 20:00etan

Alboka Abesbatzak bere 25. urteurrena ospatzeko kontzertua eskainiko du. Javi Busto zuzendari eta konposagileak urteurrenerako espreski egindako lana estreinatuko dute. Honetan, Javi Bustoz gain, SuBerri akordeoi orkestrak, Xabier Lasa gitarra joleak, Alba Carretero biolin

joleak eta Amaia Dorronsoro piano joleak lagunduko diote emanaldian.

Ipuin-kontalariak

ZULO ARETOA

Igandea 23, 12:00etan

Kontu Kantoi ipuin kontalariak haur eta gaztetxoentzat saioa egingo dute.



Bestelakoak

KIROLEGIAN

Ostirala 21, 10:00etan

Aerobik erakustaldia egingo dute Biyak Bat jubilatuek-Elkarteko kideek.

Ostirala 21, 11:00etan

Gimnastikako erakustaldia egingo dute Biyak Bat jubilatuek-Elkarteko kideek.

Ostirala 21, 12:00etan

Batuka, aerobika, eta sabel dantzako erakustaldia egingo dute Emakumeen Zentro Zibikoko kideek.

Herritarren txokoa

Alboka abesbatza kontzertua

Alboka Abesbatzak 25. urteurrenako kontzertuan parte hartuko duten abeslari-ohie eta lagunei jakin arazten die, "Kantuz" eta "Illunabarra" abestiaren entsegu orokorra bihar arratsaldeko 17:30tik 18:00etara egingo dela San Pedro parrokiaren.

Zabaleta Auzoko afarien zozketa

Zabaletako Jaietan Goiegi jatetxean lau pertsonentzako afaria zozketatu zen. Zerbaki irabazlea, 6257 da.

Zorteko pertsonak hilabeteko epea du, Zabaleta auzolan elkarteko kideekin harremanetan jartzeko.

Islada Ezkutatuak taldeak testigantzak behar ditu

Maiatzaren 22an 75 urte bete ziren Ezkaba mendian, Iruña inguruan dagoen San Cristobal fuertetik 800 presoren ihesaldia gertatu zela.

Islada Ezkutatuak taldea jakinaren gainean dago presondegi horretan lasarteoriatar bat baino gehiagok jasan behar izan zuela hango bizimodu latza.

Oroimenaren alde lan egiten ari den taldeak dei egiten die presondegi

horretan egon ziren senitarteko edo ezagunen bat duten herritarrei haiekin harremanetan jar daitezzen. Asmoa kasuak ezagutu eta zerrenda bat osatzea da. Lasarte-Orian denboraldi bat bizitako edo eskualdean bizitako pertsonen testigantzak ere jasoko dituzte.

Honetarako 695 756 565 zenbakira deitu behar dute.

Uztaro Kooperatiba

Badira urte batzuk Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian martxan hasi zenetik. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsua bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteko lokalean banatzen dira barazki eta frutak, garaian garaikoak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gustuko dutenentzat atek zabalik dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidean.

Hemeroteka

Duela 1068 ale

1995. urteko San Pedro jaietako zerbaki berezian, San Joan Suari buruzko artikulua argitaratu zen.

Honetan gure herrian jaia honi lotuak zeuden ohiturak aipatzen ziren, "guztia bizi berri-tu behar izaten zen sasoi horretan: sua, ura, landareak..."

Eta erritu horiek bizi izan zituzten herritarren hitzak ere biltzen zituzten. "Ikaragarri izaten zen, 83 su ere kontatu izan ditut Ori gainetaik Igeldoraino. sua egin eta, itzalitakoan etxeko sarrerako atean lizarra jartzen genuen," aipatzen zuen Sebastian Kerejetak.

Honetaz gain, Santakutzetan Azkorteko ermitan elorria eta erramua bedeinkatu eta San Joanak arte ondo gordetzen zirela aipatzen zuen, "elorrria eta erramurekin egindako gurutzak jartzen genituen ate eta leiho guztietan".

Domingo Erauskin Zabaleta auzoko herritarrek ere mutikotako kontuak gogora ekarri zituen, "arrapatze zan guztiya, erre danak, danak. Atso zarren bat arrapatzen bazan e bai".

"Zutik zeuden arbolak e erre eitten giñun. Osto-muturretik artze zuten su andiya eitte genuen da," azaltzen zuen.

Oroitzapen ugari elkarbanatu zituen Erauskinek, "bukatutakoan auzoa korrika, su berriya partitzen, ta ur beinkatuba. Batian 10 zentimo ematen zituen, bestian erriala ta, bestean bi ta holaxe" edo "Guk jartzen giñinak jatea gustoa etortze zianak bazian. Galletaik etzan iisten, aberatsena da galleta. Zatua jarri ta ua bueltaka, zatua ta ardua".



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Elebeltz espazioak ateak ireki ditu

► Sorkuntza eta Eztabaida Askerako Topagunea sortu dute Kotxeras-eko industrialdean okupatu duten eraikin batean. ► Bele beltza ikur hartuta, herrian dauden gabeziei erantzun nahi diete.

(B)Elebeltz, Sorkuntza eta Eztabaida Askerako Topagunea sortu dute Kotxeras-en herritar batzuek okupatu duen eraikinean. Herrian dauden hutsuneei erantzuteko hainbat ideia darabil kolektiboak. Momentuz, eraikina txukundu, eraberritu eta ateak ireki dituzte. Asteartean, Agnes Vardaren "Les glaneurs et la glaneuse" filma eskaini zuten eta ondoren berrera-bilerari buruz mintzatu ziren. Bestalde, musika eskola abian da eta udan ekitaldi gehiago antolatzeko asmoa dute, espazioa, horretarako aproposa dela eta. Izan ere, sarrera nagusia erreka bazterreko pasealekuan dauka.

Jon ALTUNA IZA

Zabaleta auzoko festatan izan genuen Elebeltz taldearen berri. Dena den, aurretik ageri ziren herriko zenbait paretaz bazterretan bele beltz batzuk mokoan "leak", L hizkiak, eramanaz. Orain jakin da nondik datozen. Hain zuzen ere, bele beltza ikur hartuta, Sorkuntza eta Eztabaida Askerako Topagunea sortu dute Kotxeras-eko industrialde zaharreko eraikinean, edozein adineko jendearekin irekia, gazte zein helduak, espazioa ezagutu eta bertan dinamika desberdinak sortzeko asmoarekin.

2012ko eguberrietan sartu ziren bertara herritar batzuek, eta sei hilabete hauetan txukundu egin dute: ura eta argi indarra jarri, garbitu, margotu eta abar. Espazioa ari da, jada, izan nahi duenaren itxura hartzen: erdian, elkarteko mahaia, aulki eta sofa batzuek, bazter batean eskeinatokia, paretetan graffitiak eta abar. Dena den, oraindik ez dago erabat egokituta, eta,

beraz, iturgin, elektrizista edo besteen laguntza eskertuko dutela eta altzari, etxe-tresna elektriko, margo, erreminta eta abar jasoko dituztela jakinarazi dute.

Tona eta erdi zabor atera dute industrialde zaharrean okupatutako eraikinetik eta, lokala eraberritu ondoren, prozesuaren bideo bat egiteko asmoa dute, aurretik zuen egoera eta orain hartu duen itxura alderatu eta ezagutarazteko.

Espazioa

Astelehenero arratsaldeko 19:00etan eraikinean elkartzen diren helburua, herrian ikusi dituzten gabeziei erantzutea da: "horiei buelta eman saiatuko gara inori itxaroten egon gabe. Zer edo zer egiteko lekua, espazioa, izango dugu behintzat" eta horretarako zabaldu dituzte ateak interesa duen edonorentzat.

Okupazioak aspalditik izan du lekua Lasarte-Orian. Adibide asko dira, INEM eta Udaletxe zaharrak, Villa Mirentxu, Andre Joakinaena... Horrek, gainera, batzuei



Elebeltz, Sorkuntza eta Eztabaida Askerako Topagunea: Industrialde zaharreko eraikinean biltzen dira astelehen iluntzetan.



Bele beltzak ageri dira kaleetan.

bertan bizi eta alokairurik ez ordaintzea ahalbideratzen die. "Lekua badago", diote.

Tokia herriarentzat zerbait garrantzitsua izango dela eta potentziala duela uste du Elebeltz kolektiboak. Oraingoz, "abandonatutako espazio bat" errekuperatu dute, herriaren erdigunetik aparte, baina ez oso urruti: "Urte asko pasa dira ezer okupatu gabe. Beti izan du horrek sinpatia herrian, beti ideia buruan, baina aspaldi ez da gauzatu. Guk egin dugu eta espero ez bidaltzea hemendik, lan handia egin dugu eta dagoeneko" esan digute.

Funtzionamendu irekia

Momentuz, espazioa prestatu eta funtzionatzeko gutxieneko baldintzak finkatu dituzte. Argi dute, herrian dauden hutsuneei erantzun nahi die-

tela, hau da, ez dute herrian egiten den beste ekimenik oztapatuko. Bultzatzaileen iritziz, "bertan erakundetzea bultzatuko du kolektiboak. Edozer gauza egiteko aukera dago, baina bertatik dinamizatuta. Kanpotik datozen gauzak ongi etorriak dira, baina, beti ere, espazio honetako dinamikan txertatzen baldin badira".

Dagoeneko, herriari espazio ireki eta hasi dira gauzak antolatzen. Asteartean, filmea eta tertulia burutu zuten eta uda garaian beste hainbat ekimen antolatzeko asmoa dute.

Ateak zabalik izango ditu Elebeltz espazioak, esan bezala, astelehenero arratsaldeko 19:00etatik aurrera, nahi duen ororentzat.

Lasarte-Orian gure ikurrak



Ekainak 22, larunbata
Ikurrinaren aldeko festa 12etan Okendo plazan

Bertsolariak, Abesbatzak, Pailazoak,
Dantzariak, euskal hamaiketakoa
eta gure herrian izan den ikurrinarik handiena